

**Zinema zikloa. Zinema feministaren historiak II**

**Nación.** Margarita Ledo, 2020

Aurkezlea: Aitziber Olaskoaga, zinemagilea

Ekainaren 5ean, larunbata, 18:00etan

Argibide gehiago: [www.artium.eus](http://www.artium.eus) # | Pelikularen trailerra: <https://vimeo.com/463789358>

**MARGARITA LEDOREN NACIÓN PELIKULA ZINEMA FEMINISTAREN HISTORIAK ZIKLOAN: EMAKUMEAK ETA LANGILE BORROKA**

Ledok amaitu gabeko borroka baten kontakizuna egin du dokumental honetan, A Pontesako zeramika fabrikako emakume kementsu eta karismatikoena.

Zikloa Artium Museoak eta Tabakalerak, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak, elkarrekin egindako proposamena da

Artium Museoaren, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoaren, Emanaldi aretoan, **Margarita Ledo** zuzendari galziarraren *Nación* filma proiektatuko da datorren larunbatean, ekainak 5, 18:00etan, *Zinema feministaren historiak* zikloaren barruan. Margarita Ledok amaitu gabeko borroka baten kontakizuna egin du dokumental honetan, Pontevedrako A Pontesa zeramika fabrikako emakume kementsu eta karismatikoena, hain zuzen ere. 2001ean itxi zuten behin betiko, 1980ko eta 1990eko hamarkadetako birmoldaketa industrialaren ondorioz. Aitziber Olaskoaga zinemagileak egingo du filmaren eta zuzendariaren aurkezpena. *Zinema feministaren historiak* (Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroaren eta Artium Museoaren arteko lankidetzaren emaitza) zikloaren helburua emakume zinemagileak eta haien sorkuntzak aldarrikatzea eta ezagutaraztea da.

A Pontesa zeramika fabrika ixtearen aurkako borrokan protagonista izan ziren emakumeen ahotsak biltzen ditu, 20 urte geroago, *Nación* dokumentalak. Zinemak askotan jorratu du langile-borrokaren gaia, baina film horietan gutxitan agertu da borroka horrek emakumeentzat duen espezifikotasuna, lanean hasteak ekarri zuen askatasunaren ondoren, industria-sektorearentzat ere nahasiak izan ziren garai haien erdian.

A Pontesako zeramika fabrikako emakume kementsu eta karismatikoaren aurpegi eta ahotsen bidez, Margarita Ledok amaitu gabeko borroka baten kontakizun hunkigarri, borrokalaria eta poetikoa eraiki du. *Nación* joan den martxoan estreinatu zen zinema-aretoetan eta, zuzendariaren hitzetan, «emakumeok eskubideak izateko behar izan dugun denbora luzea aztertzen duen filma da, ez bakarrik botoa emateko, baita soldatapeko lana eta independenteak izateko aukera lortzeko ere. Laburbilduz, zenbat kostatu zitzaigun Nazio izatea».

Margarita Ledo (Castro de Rei, Lugo, 1951) galiziar kulturako irudi garrantzitsu bat da, zinemagilea, idazlea eta Santiago de Compostelako Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioko katedraduna. Poesia, narrazio-liburuak eta saiakera argitaratu ditu, baina baita hainbat ikerketa lan ere. *Santa Liberdade* (2004) izan zen bere lehen film luzea, eta haren ondoren *Liste, pronunciado Lister* (2007) eta *A cicatriz branca* (2012) fikzioa etorri ziren, bigarrena *Porta blindada* nobelan oinarritua; hainbat lan esperimental eta dokumental ere egin ditu. Premio Nacional da Cultura Galega saria jaso zuen 2008an Zinemaren eta Ikus-entzunezkoen arloan, Otero Pedrayo saria 2017an, eta gainera Galiziar Akademiaren kide da.

Artium Museoa eta Tabakalerak antolatutako *Zinema feministaren historiak* zikloak emakume zinemagileen lana aldarrikatu eta ezagutarazi nahi du. Zuzendari horien sormen-unibertsoan sakontzeko, zinemari eta kulturari lotutako emakume batek egiten du aurkezpena proiektzio bakoitzaren aurretik.

*Naciónen* ondoren, uda ostean jarraituko du zikloak, eta film hauek guztiak ikusi ahal izango ditugu: Barbara Hammer-en *Audience* (1983) eta Xiana do Teixeiroren *Tódalas mulleres que coñezo* (2018), Irati Crespo ikertzaile, kritikari eta zinema-komisarioak aurkeztuak, Helke Sander-en (*The All-around Reduced Personality - Redupers*, 1978), Lola Hinojosak, Reina Sofia Museoko zinema eta bideo kontserbatzaileak aurkeztua, Nina Menkesen (*Queen of Diamonds*, 1991, Ainara Elgoibar artistak aurkeztua eta Claire Simonen (*Mimi*, 2003), Katixa Agirre idazleak aurkeztua.

## Artiumen ikusgai dauden erakusketak

**Zeru bat, hamaika bide. Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002 aldian.** Artium Museoa Bilduma

**Katinka Bock. Logbook.** 2021eko irailaren 12ra arte

**Xabier Salaberria. Arkitekturarik gabekoe erakusketa bat.** 2021eko urriaren 3ra arte

**Patricia Esquivias. Cardón cardinal. Z aretoa.** 2021eko ekainaren 27ra arte

**Nadia Barkate. Testuinguruak bilduma batetik abiatuta.** 2021eko maiatzaren 29tik irailaren 5era

**Bigarren bidea (Zeru bat, hamaika bide).** Artium Museoa Bilduma

**Gerardo Armesto. Ikuspuntu geldiezia.** 2021eko ekainaren 20ra arte

### Aurki

**Norberak eraikitzea. Pieza solteak. Jolasa eta esperientzia. Antonio Ballester Moreno.** 2021eko ekainaren 25etik azaroaren 1era

**Paradisua. Maddi Barber, Marina Lameiro. Z aretoa.** 2021eko uztailaren 1etik irailaren 12ra